

## 02 Europaren nortasuna



Haur bat Budapesteko Millenaris parkean. Europako Batasuna osatzen duten hainbat estaturen banderen aurrean iolasean. ATTII A MANFK / FFF

# Metafisikatik pragmatismora

**Europaren nortasuna europazalerik amorratuenen kezka izan da hainbat urtez. Ekonomiak zokoratutako eraikuntza proiektuan, baina, hainbat adituk diote krisitik irtetea bezain garrantzitsua dela izaera hori zer den definitzea eta gizartean sustatzea.**

Mikel Rotaetxe

**E**strasburgoko Notre Dame katedrala hautatu zuen Jacques Delors Europako Batzordeko presidentea ohiak Europaren eraikuntzaren zerumugaz mintzatzeko. Urte garrantzitsua izan zen 1992 hura: Sobietar Batasuna errautsean itoa zen dagoeneko, eta Gerra Hotza iraganeko gertakari bat baino ez zen. Hala, aro berriek erroka berriak ezarri zizkieten Europari, eta Europako Batasunak indartsu ekin zion historiako kapitulu berri hura idazteari. Herbehereetako

Maastricht hirian merkatu bakarra sortzeaz zela, Delorsek iragarri zuen proiektuaren hurrengo pausoa ez zela ekonomikoa, ez finantzarioa, ezta estrategikoa ere: «Datozen hamar urteetan Europari ez badiogu arima bat ematen, partida galduko dugu betiko».

Historiako paradoxarik handienetako bat da Europaren eraikuntza. 50eko hamarkadan, mendeetan etsai izandako herrialdeak proiektu bakar batean bildu ziren, eta, orduz geroztik, elkarbitza eredutzat jo izan dute bat egite hori. Denboraren poderioz, batasun ekonomikoa iritsi zen,



lizazio» moduko bat gertatu zen, egun ezagutzen dugun Europaren eraikuntza abiatu ostean.

Orduz geroztik Europa hazi baina ez zen egin, baina ibilbide horretan amets horrek ez zuen lortu gizartean irautea. «1950 inguruan, bateratze proiektuak sostengu zabala zuen», azaldu zuen bere garaian Ronald Ingle-

**Konstituzio Itunaren porrotaren ostean, zilegitasuna ez izatea egotzi diote**

**Ezberdinen arteko ezaugarri bateratuak beharrezkoak dira krisitik irteteko**

hart politologoak: «Integrazioa bakearen sinonimoa zela uste baitzen, eta askatasun handia eman baitzieten agintariei negoziazioei ekiteko». Baina joera hori ez zen harago joan, eta Inglehartek zioen 70eko hamarkadako krisia zela eta Europak miresle asko utzi zituela bidean. 80ko hamarkadan batasunaren aldeko jarre-  
rak areagotuz joan ziren apurka, baina Maastrichteko Ituna sinatzeaz geroztik, gizartearen europismoa segada latza bilakatu zen Europarentzat berarentzat. «Gauzak ongi badoaz, primeran», uste du Stefania Panebianco ikerlariak, «baina jendea ez dago Europaren mesedetan sakrifizioak egiteko prest».

Azken urteetan Europaren aurkako iritziak etengabe ugaltu dira. 2005eko Konstituzio Itunaren porrotaren ostean, zilegitasuna ez izatea eta demokrazia lurperatzea egotzi izan zaio Europari, eta krisi ekonomikoak batasuna astinduz duenetik, Frantzia eta Alemaniaren txotxongiloa izatea leporatu diote. Gainera, globalizazioan elkartekideek subiranotasuna galtzea Bruselari leporatzeak ataka larriarri utzi ditu XIX eta XX. mendeko ikuspegi erromantikokoak.

### **Europako nortasuna jopuntuan**

«Europar, baina Europar gabe». Hala defini daiteke garaiotako herritarren eta eraikuntza proiektuaren arteko harremana. Gizarteak Europaz duen ikuspegi hori hainbat ikerketaren aztergai izan da, eta ugariak izan dira europismoa eta europar identitatearen lan-  
du duten adituak. Baina ez da erraza izan, inondik inora ere, eta gehienek aitortzen dute Europaz mintzatzea afera konplexua dela. Horren harira, Europaren nortasuna lantzea buruhauste latza izan daiteke, proposamen ugariak izan direlako eta, batzuetan, kontrajarriak.

Soziologiako katedradun Manuel Castellsek iritzi dio nortasun

kolektiboa pertsonen bizitzari «zentzu sinbolikoa» ematen dioten balioen multzoa dela, eta norberaren kideza sentimendua eta autodefinitzioa indartzen duela. Esparru nazionalerara mugatuz, erraza da baieztatzen horrekin bat egitea. Baina zer gertatzen da, ordea, Europara jauzia eginez gero? Zilegi al da Europako Batasunarekiko nortasun sentimendu bateratu batez mintzatzea halako eremu askotariko batean?

«Bai, zilegi da», uste du Daniel Reberedo historialariak. «Herritar askok uste dute Europaren nortasun bat izateak bere jatorrizko identitatea ukatzea dakarrela, baina ez da egia». Ikerlariak esan du gizartean okerra dela identitatea bakarra eta aldezina dela pentsatzea, eta uste du gizakiari zaila zaiola ikustea identitate bat baino gehiago izan dezakeela. Adierazpen horietan dago, Bartzelonako Unibertsitateko Kultura arteko heziketa taldeko irakasle Ines Massoten arabera, Europaren nortasunaren erroren nagusia: «Egungo egoera kritikotik irteteko, nahitaezkoa zaigu ezberdinen artean ezaugarri, jarrerak eta sinbolo bateratuak eustea». Nolakoak dira, baina, sinbolo horiek?

Orain arte gailendu den ikuspegia ustezko oinordekotza kultural batean oinarritu da. «Gure ondasun handienak askatasuna, bakea, giza duintasuna, berdintasuna eta justizia soziala dira» esan zuen Txekoslovakiako presidente ohi Vaclav Havelék Europar Identitateari Buruzko Eskutitza manifestuan. «Balio horiek antzinaroan eta kristautasunaren erroren ziren, eta 2.000 urtez garatzen jarraitu zuten, egungo demokrazia modernoak eratu arte». Havelen adierazpenen lerro artean, Europaren nortasunaz mintzatzeko garaian nabarmendu ohi diren balio klasikoak antzeman daitezke: Ilustrazio garaiko balioak, demokrazia, humanismoa eta kristautasuna. Balio horiez gain, Jurgen Habermasek eta beste autore batzuek XX. mendeko hainbat termino erantsi dizkiote Europaren identitateari, hala nola ongizate wstatuaren aldeko sentsibilitate berezi bat.

### **Kultura anzitasuna ardatz**

Baina ikuspegi hori beira bezain hauskorra izan daiteke. «Europako gizarteak balio jakin batzuen pean eraiki dituztela egia bada ere, gaia korapilatsua da, kristautasunaren aipamenari dagokionez, batez ere», uste du Xose Manuel Nuñezek, «Esandakoa hala bada, zer gertatzen da europarrak eta musulmanak diren horiek? Albania ez da Europa?», gehitu du. Hala, Europako ustezko balio klasiko horiekin kontu

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

eta iraganean balentria hutsa zirudiena egia bilakatzear izan zen laster, diru integrazioa bidean baitzen. Baina ibilbide horretan, ustekabeko porrot bat izan zuen Europak, ez baitzuen lortu oinarritzakoena: europismoa gizarte-  
ratzea eta nortasun bateratu bat zintzotasunez definitzea eta sustatzea. Alegia, Kontinente zaharrari Delorsek gutiziatutako «arima» hura ematea. Gogoeta metafisiko hutsa dirudiena, baina, amaierarik gabeko buruhauste politikoa bilakatu da Europako Batasunaren.

Hogei urte geroago Europako Batzordeko buru izandakoaren iragarpenean airean lausotu da, eta asko beldur dira partida hura benetan galdu ote den. Hala, herritarrek erakundeez fio ez diren eremu batean —%47, Eurobarometroaren arabera—, subjektu geopolitikoak ez du sekula arimarik izango. «Brusela eta Eststrasburgotik Europaren aurpegiak ilunena ezarri digute garaiotan; murrizketena eta neoliberalismo basatienarena», dio Nafarroako Unibertsitate Publikoko Jean Monnet katedrako arduradun Jose Luis Iriartek, «eta, horrenbestez, ez da harrizkoa errezuelo sakona izatea europar ereduaren inguruan».

Egoera hori aldatu eta Batasunaren etorkizuna bide zuzenera

eramateko, aditu askok diote krisitik irtetea bezain garrantzitsua dela gogoeta sakon eta zintzoa egitea Europa bera zer den eta zer beharko lukeen, eta baita gizartean Europaren gaineko inspirazioa berriz piztea. «Europismoaz eta europar identitateaz mintzatea konplexua da», dio Ulrich Beck soziologoak, «baina, era be-

**Eurobarometroaren arabera, herritarren %47 ez dira fio Europako erakundeez**

**Europismoa hurbilago egon da elite intelektualetatik, herritarrengandik baino**

rean, beharrezkoa, etengabe erakitzen ari diren Europa hau ez delako behar bezala ulertu».

### **Euro-ametsa, eliteen ametsa**

Europaren nortasun krisia agerikoa bada ere, historiako une batzuetan gizartea europazalea izan dela iritzi diote identitate europarra ikertu duten hainbat autorek. Compostelako Unibertsitateko irakasle Xose Manuel Nuñezek, esaterako, uste du beti egon dela «Europaren ideia» lauso baina

iraunkor bat gizartean, eta herrialde bakoitzak balio multzo ezberdinekin erlazionatu izan duela azaldu du. «Eraikuntza sustatu zuten estatuetan, esaterako, bi mundu gerran ondorio latzei aurre egiteko formula gisa ikusten zuten Europa», azpimarratu du Nuñezek, «eta hegoaldeko herritarrek, berriz, diktadurak ahaztu eta demokrazia berreskuratzeko giltza gisa».

Baina Europaren aldeko sugar hori noizbait piztu bazen ere, europismoa hurbilago egon da elite intelektual eta politikoetatik, herritarrengandik baino. Europa subjektu politiko gisa definitzen duten lehen adierazpenak Erromantizismo garaikoak dira. Victor Hugok, esaterako, batasun politikoa lehen interpretazioetako bat egiten zuten 1849an, Parisko Bakearen Etxean: «Frantziak, Errusiak, Italiak, Ingalaterrak eta Alemaniak bat egingo duten eguna iritsiko da noizbait, eta elkarren artean borrokatzeko eremu bakarrak merkatuak eta ideiak izango dituzte». Halako hausnarketa aitzindarietatik abiatuta, proposamen paneuropazaleak garatuz joan ziren ondorengo hamarkadetan. XX. mendean, ikuspegi horiek nazioarteko politikara egin zuen jauzia, eta II. Mundu Gerra amaitu ostean europismo horren «instituziona-

(Aurreko orrialdetik dator)

handiz ibili behar dela oharatzen dute hainbat adituk, etnozentrismotik hurbil egon daitezkeelako. Bartzelonako Unibertsitateko irakasle Massotek dio Europaren identitatea nazio batzuekiko kideztara eta kultura eredu homogeneo batera mugatzen baldin bada bere barnean bizi diren guxtiengo kulturalak baztertzeko dituela. Identitate klasikoaren iparrorratza norabidez aldatzea proposatu du Massotek: «Funtsezkoa da Europaren nortasuna kultur aniztasunarekin lotzea».

Gogoeta horien harira, Daniel Reboedok iritzi dio ez dela ukatu behar Europako Batasuneko errealitateari zutabe jakin batzuetan eutsi izan zaiola, baina azpimarratu du horrek ez duela zergatik identitatea itxia dela esan nahi: «Gauza bat da nondik gatozen, eta bestea, nora goazen». Reboedok uste du egungo Europan identitatea etniarekin lotzea sekulako akatsa dela, eta, hortaz, ezinbestekotzat jotzen du nortasunak homogeneoa eta itxia ez duela behar oharatzen eta identitate ireki bat eratzea.

### Nortasuna, Europaren salbatzaile

«Partida irabazteko», Europari arima emateaz mintzatu zen Jacques Delors 1992ko otsailen. Hogei urte igaro dira hausnarketa hori egin zuenetik, eta ekonomiak Schumann, Monnet eta Spinnilleren ametsa zokoratu duela dirudienean, aditu gehienek diote Europaren identitatea zer den adosteko eta gizartearen sustatzeko salba dezakeela batasunaren eraikuntza. Baina aitortu dute Europa bera aldatu beharko litzatekeela horretarako. «Historiak erakutsi du identitateak indartzeko modu eraginkorrena etsai berbera izatea dela», azaldu du Jose Luis Iriarte irakasleak: «Ez nuke nahi Txinako kapitalismoak mundua bere egin arte itxarotzea nortasun europarra pizteko». Iriarteri adierazi du batasunaren egungo egoera ez bada aldatzen eta ez bada demokratikoagoa izaten ez dela nortasun erreferente izango sekula, «baina, betiere, egia da gauza bat nortasuna dela eta beste bat eraikuntza».

Galdera horiek guztiak erantzuna topatzen duten heinean Europa zerumuga lauso baterantz eraikitzen jarraitzen dihardu, herritarren mespretxua bide lagun. Edozein estrategia ekonomiko bezain garrantzitsua omen da identitate europarra zehaztea eta europeismo demokratiko bat sustatzea, «kultural maitemintzen gaituelako, ez merkatuek eta burtsek». Denborak esango du Europa erronka horri eusteko gai den ala ez. Denborak eta europarrak, ez beste inork.



Europako Parlamentuaren osoko bilkura, Estrasburgon. CHRISTOPHE KARABA / EFE

Juanjo Alvarez • Nazioarteko Zuzenbidean katedraduna EHU

## «Europeismoa berriz pizteko, egiten ari ez dena egin beharko luke Europak»

M. Rotaetxe

Europazale sutsutzat jotzen du bere burua Juanjo Alvarez abokatuak (Zumaia, 1964). Nazioarteko Zuzenbidean katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta, horrez gain, Eurobask Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluko kidea. Egungo batasunarekin bereziki kritikoa bada ere, europarren etorkizun bakarra «Europa gehiago» dela iritzi dio.

**G Eurobarometroaren arabera, herritarren %47 ez dira fio Brusela eta Estrasburgoko erakundeez. Zerk huts egin du Europaren eraikuntzan herritarrek halako jarrera izan dezaten?**

**E** Lehenik eta behin, uste dut Europako Batasunak berak ez dakielana nora doan, zein den bere jomuga. Eraikuntza oso ahula izan da Europa alde horretatik, baina, hala eta guztiz ere, etengabe erakitzen jarraitu du. Horrez gain, «Europaren pozoia» bere egitura propioan dago, elkarlana eta bateratzea ez baizik gobernuen arteko harremanak, jarrera berekoikiak eta autarkiaren lehenesten dituelako.

**G Nola alda daiteke egoera? Europeismoak herritarra maitemintzen deza bereirre?**

**E** Hala izatea nahiko nuke. Europaren aldekoak garenok sekula bete ezin daitekeen utopia lutzatzea egotzi izan digute, eta batasunaren lema daramatenen alde egotea. Baina ez da hala, eta, nire ustez, bada belaualdi berri bat, mugarik gabeko Europa honetan jaiotakoa, zeinak ez duen estatuen ikuspegi klasiko eta itxia. Belaualdi horrek, gainera, badaki bateragarriak izan daitezkeela

bere jatorriko nortasunak eta bai loien Europaren aldeko sentimena.

**G Zeregin beharko luke Europak jarrera horiek areagotzeko?**

**E** Nahitaezkoa da estatuen berekoikiari lurperatzea eta, horrez gain, arrisku komunei elkarrekin aurre egiten jakitea. Hala, bateratze gehiago behar da, eta integrazioari beldurra kentzea. Azkenik, Europari ezinbestekoa zaito demokrazia areagotzea, eta Europako *demos*-aren irakurketa demokratikoagoa egitea. Europeismoa berriz pizteko, garaiotan egiten ari ez dena egin behar du Europak.

**G Entzun ohi da herritarrek ez dutela sinesten Europan. Zer esan nahi dugu Europa esatean, kasu horretan? Brusela eta Estrasburgoko erakundeak, ala Europako proiektua, bere osotasunean?**

**E** Ezinezkoa da gizarteko gaitz guztiak leporatzen zaizkion Europa batez maitemintzea. Baina laguntza ekonomikoak eskuratzeko garaian, denok hartzen dugu Europako bandera eskuetan. Autokritika hori egin beharra dagoela uste dut. Dena den, uste dut Europaren alde dagoen isileko gehiengo bat dagoela herritarren artean. Eta Europa gorrotatzen duten horiei galdera hau egingo nieke deni: zeintzuk dira Europatik alde egiteko ordaindu beharrekoak? Hemen jarraitu behar dugula ikusiko lukete.

**G Europak aurpegi asko dituela diote. Zein alderdiri eutsi behar zaio «relitean Europa» eta «neoliberalismoaren Europa» etiketak ezabatzeko?**

**E** Gobernuetako eliteek Europa beren interesen mesedetan manipulatzen dute etengabe, eta hori



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

onartezina da. Baina Europa aniztasunaren eginiko batasun gisa ikusten badugu —bai guk eta bai politikariek—, globalizazioak eragindako auzi eta arazoei elkarrekin eusteko bidea gisa ikusten badugu, eta Europa Herrien eta nazioen Europa dela oharitzen bagara, egoerari aurre egin diezaiogeko.

**G «Herrien eta nazioen Europa» alpatu duzu, hainbat korronte aber-tzalek bezala. Etorrizuneko alternatiba dela uste duzu?**

**E** Herrien Europa funtsezko giltzarria da. Herritarren eta Europaren artean dagoen *demos* bakarra eta subjektu politikoa onartu bakarra estatua bada, ez goaz ondo. Estatuei nahitaezkoa zaito ulertzea Europa herritarrek eta herriek eraikitzen dutela, eta behar guztiak ez direla berak. Adibidez, ongi legoke diru laguntzen eskualdeko ikuspegi bat gartzatzea, non Euskal Herriak laguntzak lor zitzakeen zaborren kudeaketan, azpiegitura edo turismoan. Halakoak gertatuz gero, ziur nago Europaren ikuspegi positiboagoa errotuko litzatekeela.

**G Zer deritzozu Europaren nortasunari?**

**E** Europaren nortasuna elkarbizitza bestelako eredu sozial eta politikoa baten alde egiten duen identitate bat izatea nahiko nuke, bestelako harreman eredu bat bermatuko lukeen nortasuna. Grezia klasikoak erakutsi digu izan daitezkeela merkatu hutsean oinarritzen ez den gobernu ereduak. Hori izan beharko luke Europako Batasunak; ezberdinen arteko elkarbizitza eredu bat, etengabeko lehiakortasun ekonomikoaren obsesio gaixotirik gabe. Bi aukera ditugu: jomuga horretarantz joatea, ala, egun dirudien bezala, geure bizitza amerikartu eta pribatutasunaz setiatuta bizitzea.

**G Jende askok dio erokeria hutsa dela europeismoa eta europar nortasunaz eztabaidatzea, egoera ekonomikoa hain larria izanik...**

**E** Inoiz baino beharrezkoagoa da. Lehiakortasun ekonomikoak bizitzaren ikuspegi teknokrata bat ezartzen ari da, eta badirudi hausnartzea eta aztertzea ez dela beharrezkoa. Europako proiektua geratu duen benetako arrazoia herrialdeen arteko elkartasunik eza izan da, eta horrek identitatearen aldeko apustua ez egitearen ondorio da. Askotan entzun ohi dugu «joan daitezela greziarrak popatik hartzera!» eta halakoak, denok gure sabelari begiratzen diogulako. Autarkia hori Europaren nortasunaren aurkakoa baino ez da, eta gainditu egin beharra dago. Zulo horretatik irteteko bide bakarra nortasun europarraren aldeko defentsa egitea da, hori baita Europaren proiektuaren motor bakarra.